



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2018ko irailaren 25a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparragirre

Zinegotziak

Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Bixente Lasa Karrikaburu, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparragirre Alberdi, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkaria funtziotan

Ibai Lertxundi Iribar

Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, udal aurrekontu propioaren 6/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 2.- Onartzea, egoki bada, 5/2018 zenbakidun konpromiso-kreditua.
- 3.- Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak 2019rako.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko Bake Epaitegiko bake-epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren arteko hitzarmena, etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 6/2018 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2018 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 47.500 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2018ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2018ko aurrekontuari dagokion 6/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 47.500 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) **Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) **Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.



c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 5/2018 ZENBAKIDUN KONPROMISO-KREDITUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2018 zenbakidun konpromiso-kredituak 50.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2018ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2018ko aurrekontuaren barruko 5/2018 konpromiso-kredituari. Konpromiso-kredituak 50.000 euroko zenbatekoa du.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Aginduan ezarritakoa betez, honako arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Kontu-hartzailatza departamentua.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa. Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4. artikulua adierazitako gainerako lekuetan ere aurkez daitezke.

d) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.



Jendaurreko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betikoz onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2019RAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak eskaria aurkeztu du, 2019an Orioko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %2,3 igotzea proposatuz. Honez gain, ustiapenaren kostuen azterketa aurkeztu dute.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitateko Batzorde Informatzaileak 2018ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA %2,3 igotzea Urola Kosta bailarako auto-taxi zerbitzuaren tarifak, Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak proposatutakoa aintzakotzat hartuz. Tarifa berriak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko dira indarrean.

Beraz, 2019ko tarifak honako hauek izango dira:

TARIFA URBANOAK 2019			
PROPOSAMENA	GUTXIENeko TARIFA	KILOMETRO BAKOITZEKO	ITXOITEN PASATAKO ORDUA
1. TARIFA*	5,4344	1,1597	22,1480
2. TARIFA**	6,4690	1,8497	36,1523

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxoiten pasatako 5 minutu.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igandetan, larunbatetan eta jaiegunetan, eta abenduaren 24an eta 31n, 07:00etatik 22:00etara.



4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BAKE EPAITEGIKO BAKE-EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Idazkariak irakurri egiten ditu barrutiko Bake Epaitetikoko epaile titularra eta epaile ordezkoa aukeratzeko aplikagarriak diren lege-arauak eta irakurtzen ditu, baita ere, horretarako irekitako espedientean gaurko egunera arte ageri diren diligentziak eta jarduerak.

2017ko abenduaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (233. zenbakia) eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bidez, Orioko Udalak jakinarazi zuen, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 99.etik 103.era arteko artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, udalbatzarrari dagokiola pertsonak aukeratzeko bake-epaile titular eta bake-epaile ordezkoko izendatuak izateko; interesa duten pertsonak instantzia aurkeztu behar dute udaletxeko erregistro nagusian, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita eguneko epearen barruan; interesatuek instantzian jaso behar dute eskatutako betebeharrak guztiak betetzen dituztela, eta agiriak aurkeztu beharko dituzte, hori frogatzeko eta ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez dutela frogatzeko; hautagaiek erantsi beharko dute, baita ere, txosten labur bat, beren hautagaitzaren egokitasuna arrazoituz eta behar diren xehetasunak emanez hori baloratzeko; behin instantziak aurkezteko epea bukatuta, udalbatzarrak aukeratzeko dituen bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aurkeztu direnen artean, baldin eta legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; hautagaitzarik ez balego, udalbatzarrak libreki aukeratzeko dituen, ezarritako prozedurari jarraituz, eta eskumena duen Jurisdikzio Organoari jakinaraziko dio gero.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzarraren eskumena da bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aukeratzeko proposamena egitea; erabakia udalbatzarkideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartu behar da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna, Pertsonala eta Kalitateko Batzorde Informatzaileak 2018ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

1.- ARITZ GONZALEZ ELIZONDO AUKERATU ETA PROPOSATZEA Orioko Bake Epaitetikoko bake-epaile titular kargurako. Hala ere, kargua betetzeko, proposatutako pertsonak espresuki onartu beharko du eta, aldi berean, aitortpen bat aurkeztu beharko du, adieraziz ez dagoela sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialak betetzeko ezgaitasunik edo bateraezintasunik kausetako batean.



2.- JOSEBA GARTZIA ETXEGARAI AUKERATU ETA PROPOSATZEA Orioko Bake Epaitetik bake-epaile ordezeko kargurako. Hala ere, kargua betetzeko, proposatutako pertsonak espresuki onartu beharko du eta, aldi berean, aitoren bat aurkeztu beharko du, adieraziz ez dagoela sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialak betetzeko ezgaitasun edo bateraezintasun kausetako batean.

3.- BIDALTZEA udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzeko ziurtapena Euskadiko Justiziako Auzitegi Gorenaren presidenteari, karguak betetzeko proposatutako pertsonen berariazko onarpenekin eta ezgaitasun edo bateraezintasun kausatan sartuta ez daudela dioten aitorenekin batera, dagozkion izendapenak egin ditzan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.3 artikulua ezarritakoaren arabera.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gizarte Ongizateko batzorde informatzaileak 2018ko irailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren artean izenpetu beharreko hitzarmena, etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jende artetik herritar batek hitza hartzen du eta udaletxean jaso den idatzi anonimo bati buruzko azalpena egiten du, bere desadostasuna eta haserrea adieraziz. Idatziaren edukiak benetan mina eragin diola adierazten du eta, ondoren, idatzi hori ematen dio alkateari, eta kontuak eskatzen dizkio idatziaren jatorri eta helburuei buruz.

Alkateak azaltzen du idatzi anonimo hori udaletxeko beheko solairuko iradokizunen postontzian azaldu zela, alkateari zuzendua. Izenpetu gabeko idatziak Lasa zinegotzi jauna aipatzen du eta, nahiz eta inongo baliorik ez zion eman, alkateak dio kopia bat eman ziola Lasa zinegotziari, jakinaren gainean egoteko.



Hitza hartu duen herritarrak hala eskatuta, alkateak irakurri egiten du idatzi anonimoa.

Lasa zinegotziak adierazten dio alkateari ez lukeela idatzi hori tramitatu behar, izenpetu gabe dagoelako. Alkateak erantzuten dio ez duela tramitatu eta ez diola idatzi horri inongo baliorik eman. Berari kopia bat eman besterik ez zuela egin, baina ez zuela bestelako inongo tramiterik bultzatu.

Eztabaida sortzen da alkatearen, Lasa zinegotziaren eta aurrez hitza hartu duen herritarraren artean. Eztabaida horretan hainbat gai nahasten dira eta hainbat pertsonak parte hartzen dute. Gai horien artean EA talde politikoaren egoitza sozialaren jarduera-baimena erregularizatzeko espedientea aipatzen dute: Lasa zinegotziak eta herritarrak adierazten dute aipatutako erregularizazioa aurrera eramango dutela, nahiz eta kostu handikoa izan berentzat; eta, horretarako, harremanetan daudela dagoeneko udal teknikariekin.

Alkateak adierazten die ondo iruditzen zaiola.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza eta, alkateari esaten dio ez liokeela tramite edo biderik eman behar idatzi anonimo bati.

Ondoren, Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: alde batetik, alkatearengana zuzenduz, adierazten du ez lukeela idatzi anonimoa tramitatu behar; eta, bestetik, EA talde politikoaren egoitza sozialaren jarduera-baimena erregularizatzeko espedienteari dagokionez, esaten du ez zirela beharrezkoak alkateak dekretu bidez egin dituen errekerimenduak.

Alkateak erantzuten dio salaketa formal bat egon zela eta behartuta zegoela espedientea tramitatzera.

Azkenik, Lasa zinegotziak adierazi du aipatutako espedientearen tramitea aurrera doala eta egoera erregularizatuko dutela.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria funtziotan naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA FUNTZIOTAN,